

DATORRENA

Critchley ezagutu ahala, maiteago
dut Azurmendi

IÑAKI SOTO > 3

JOSEBA TOBAR-ARBULU: «EBko
politiken aurrean, ausardia behar
da, eta informazioa» > 23

2016ko abuztuaren 13a | X. urtea • 480. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



KIWIA SALBATU, BESTEAK HIL

ZEELANDA BERRIAN MILIOIKA ARRATOI, ERBINUDE, ZARIGUEIA ETA KATU BASATU
HILTZEKO ASMOA DUTE, HEGORIK GABEKO HEGAZTI EZAGUNA ETA NAZIOAREN
SINBOLOA DEN KIWIA SALBATZEKO MODU BAKARRA DELAKOAN. > 23

GAUR8



Zeelanda Berria: Kiwi hegaztia salbatzeko, hainbat harrapari mota desagerrarazi behar 04

Tolosako patin denda: Lasterka edo pasean, patinatzaileak gurean ere 10

Biziegi dabilen LGTBifobia bistartzeko proiektua, Gehituren eskutik 14

Elkarrizketa: Joseba Felix Tobar-Arbulu, ekonomialaria: «Ausardia behar da» 18

ENEEK, Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua: Tomatea, udako erregea 21

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Crithcley ezagutu ahala, maiteago dut Azurmendi

08 **Oier Gorosabel:** Osasun aseguruak eta «txurriterapia»

09 **Mikel Zubimendi:** Estatuak emandako kolpeen markagailuan ez neurtu

13 **Unai Iturriaga**

15 **Joxean Agirre:** «Ama!, ez dudala nahi»

16 **Gaizka Amondarain:** Olinpiar Jokoak Zeledonek asmatu zituen

17 **Garazi Goia:** Lau urteren ostean...

22 **Iratxe Esnaola:** «Influencer»-ak



{ datorrena } Iñaki Soto

Crithcley ezagutu ahala, maiteago dut Azurmendi

Lanaren eta arduren ondorioz, filosofiatik zeharo aldenduta nago azken urteotan. Horregatik, udako irakurraldiak nire formakuntzan eta bizitzan hain garrantzitsua den diziplina horrekin kateak ez hausteko erabili ohi ditut. Edonola ere, irakurgai sakonekin batera arinagoak diren liburuak ere tartekatzen ditut.

Pablo Cabezaren kritika honek [<http://goo.gl/TsCg8E>] eraman ninduen “Bowie” liburura, eta liburuak niretzat ezezaguna zen Simon Crithcley autorera ekarri nau. Pablaren kritikak liburua erostera, irakurtzera bultzatzen zaitu. Kritika zuzena da: Bowie eta literatura maite badi-tuzu honen idazkerak erraz harrapatuko zaitu. Baldin eta filosofia ikasi ez baduzu. Edo, gutxienez, ez filosofiaz ideia jakin bat baduzu [ikus C. U. Moulinesen “Zer da filosofia?”]. Kasu horretan, orrialdeak pasa ahala, sutzen joango zara, haserretzen.

Ez da, inola ere ez, Crithcley musikaz aritzeko esku-biderik ez duenik, ezta Bowie bezalako ikono baten irakurketa pertsonala egin ezin duenik ere. Adibidez, Nick Hornbyk eta Hanif Kureishik (Filosofia ikasitakoa, hau ere) ederki egin dute hori beren eleberrietan. Baina “High Fidelity” edo “The Buddha of Suburbia” irakurtzen dituzunean, ez duzu zer irakurtzen ari zaren inguruko zalantzarik: literatura da. Niretzat, goi mailako literatura. “Bowie”

irakurtzerakoan, ordea, behe mailako filosofia irakurtzen ari zaren ideia izan dezakezu. Eta gezurra da. Hau ez da filosofia. Gehienez ere, filosofo batek idatzitako (hil berri den) «musikari bati buruzko entsegu literarioa» da. Nire ustez, ordea, “Bowie” bere amaren heriotzagatik dolua egiteko Crithcley bilatu duen ariketa literario-terapeutikoa da, batez ere. Eta ez legoke batere gaizki, baldin eta aldeztetik horretaz irakurlea ohartaraziko balu, izenburutik bertatik hasita (zergatik ez “David, ama eta hiru-rok?”). Kasu horretan, sarri erakusten duen zorroztasun falta errazago barkatuko nioke nik. Adibidez, metaforei buruz egiten dituen interpretazio arbitrarioetan.

Gerora jakin dudanez, Crithcley bada norbait gaur egungo filosofiaren sisteman. Adibidez, “New York Times”-ek filosofiari eskainitako The Stone sailaren arduraduna izan da [<http://goo.gl/cDSmgW>]. Pentsatuko ze-

nutenez, berotuta joan nintzen Crithcleyren testuak irakurtzera, elkarriketak entzutera... eta hein batean harritu ninduela onartu behar dut. Bere filosofiari buruzko idazlanak irakurrita pentsalari jantzia dela ikusten da, alegia, ez dela *meketrete* bat. Pentsa, AEBetan irakasten duen pentsalari ingeles hau ze garrantzitsua den, Zizekekin ere polemika bat izan duela! Hori da, gaur egun, filosofian norbait izatearen adierazgarri argienetako bat. Eta, ziur asko, Chomsky eta Foucaulten arteko eztabaidarekin konparatuz gero, filosofiari buruzko eztabaida publikoaren bilakaera tristearen zeinuetako bat.

Zizekekin izandako eztabaidari buruzko kronika hau bereziki gustatu zait [<http://goo.gl/nfkhEI>]. Bere «neoa-narkismoaren» ahuldadea ikusita (Giddensen «hirugarren bidearen» bertsio metafisikoa baino ezer gutxi gehiago dena, nire ustez), Crithcley filosofiarekiko nera-

Besteak beste, darwinismoaz ari da Azurmendi. Tamalez, filosofoak espezie bat badira, azurmenditarrak desagertze bidean ez ote dauden kezka daukat, baita critchleytarrak gailenduko diren beldurra ere

bezaroan karpetetako pegatinak anarkiarekiko direnaren berdina direla pentsatu dut.

“Bowie”-ren ondoren Joxe Azurmendiren “Gizabere kooperatiboaz” hartu dut. Liburu bikaina iruditu zait, filosofiaren beste puntan kokatzen dena. Dokumentatua, zorrotza eta iradokitzailea da. Hori bai, esfortzua exijitzen du, gero eta zailagoa egiten zaigun kontzentrazioa eskatzen du. Besteak beste, darwinismoaz ari da Azurmendi. Tamalez, filosofoak espezie bat badira, azurmenditarrak desagertze bidean ez ote dauden kezka daukat, baita critchleytarrak gailenduko diren beldurra ere. Bere metodoari jarraituz, edozeri norberak nahi duen esanahi eman ahal badio, Bowiek berak aurreikusi zuen: «*Seeing more and feeling less/ Saying no but meaning yes/ This is all I ever meant/ That's the message that I sent*». Alegia, «*mis cojones 33*». •

«FREE KIWI, KILL THEM ALL!»

2050. urterako harraparirik gabeko «herri libre» izango da Zeelanda Berria

📁 **INGURUMENA** / Mikel Zubimendi Berastegi

Harrigarria da oso Zeelanda Berria, zinez ikusgarriak bertako fauna eta landaretza.

Istripu geologiko eta historiko partikular baten ondorioz, odol beroa, larrua eta begi txiki boro-bilak dituzten animalia guztiak inbasoreak dira bertan. Izurria. Maoriek lehen, eta europar kolonoek gero, sartutako (eta sortutako) demontrea. Izan ere, bertako hegazti, intsektu eta landare endemikoei esker egin dute aurrera harrapari ugaztunek, espezie natibo asko desagertzeko zorian jartzearaino.

Zeelanda Berrian imajina dezakegu dinosauroena bezala gizakien desagerpena eman izan balitz, nolakoa izan zitekeen hegaztiak animalien hierarkian goi-goian dituen ekosistema bat. Munduan bakarra eta apartekoa den ekosistema du Kiwien Herriak. Euskararik gabeko Euskal Herria imajinatu bezain ezinezko ote da kiwiak desagertu zaizkion Kiwien Herria? Pentsa, Zeelanda Berriaren berezko isolamenduak gidatutako eboluzioak sortu zituen bertan hegorik gabeko hegaztiak, beren legea betez hegoak galdu zituztenak. Bada, hegorik gabeko hegaztien artean ikonikoena, kutunena, ezagunena, kiwia da. Zeelanda Berriko sinbolo nazionala, bertako espeziekin konexioa, naziotasunaren zutabe, maori herriaren jainko, munduan barrena herrialdeari izena emateraino: *kiwi*. Hegoafrikarrei *springbok* gazelak esaten bazaie, argentinareei *puma* edo australiarrei *aussie* bezala, Zeelanda Berrikoei *kiwi* deitzen zaie.

ASKAZI ZAHARREKO KREATURAK

Kiwi bezala beste animalia txundigarri pila bat ere badaude Zeelanda Berrian. Eta jakina, Zeelanda Berri asko daude: herrialde bat, artxipelago bat, azpikontinente bat... Bi uharte erraldoik, hegoaldekoa eta iparraldekoa, eta ehunka txikiagok osatzen dute toki guztietatik urruti dagoen herrialdea. Tasmaniako itsasoak Australiatik

Historian aurrenekoz entseatuko den izurri deuseztatze programa baten eskutik, Zeelanda Berrian mila milioika arratoi, erbinude, zarigueia eta katu basatu hil nahi dituzte. Nazioaren sinbolo eta maorien jainko den hegorik gabeko kiwi hegazti aski ezaguna, bestek beste, salbatu ahal izateko errezeta bakarra dela iritzita.

banatua, Antartika ez hain urruti, eta, Hego Amerika, lekutan!

Zeelanda Berrian igelek bizkar orno bat gehiago daukate, Mesozoikotik datozen kreaturak daude, denboran oso urrutiko askazia dutenak, adibidez *Tyrannosaurus rex* bizidun kontsidera daitezkeen tuatarak, galdu den ordena batetik bizirik irten dako azken narrasti generoa. Barraskilo erraldoiak ere badaude, haragijaleak, guk espagetiak bezala zizareak xurgatzen dituzte-

Zarigueia, sagua, erbinudea eta katu basatua dira Zeelanda Berrian desagerrarazi nahi dituzten ugaztun harraparietako batzuk.

GAUR8



nak; matxinsalto itxura duten munduko intsektu handienak ere bertan daude, intsektuen erreinuko harribitxiak.

Kuriosoa da benetan egoera: Euskal Herrian tximeleten inventarioa egiten edo txoriei eraztunak ipintzen dabilen naturalista Zeelanda Berrian zarigueiak pozoiz hiltzen edo trikuen buruak zanpatzen ibili beharko da aurrerantzean. Kasu, baina. Helburuak ameslari edo kixotezkoa dirudi, ofizialki ezarritako erronka benetan baita la-tza: Zeelanda Berria 2050. urterako harrapariz librea den herria izatea. Munduan lehen aldiz jarriko da abian horrelako egitasmo kolektibo bat. Ehunka milioi, milaka milioi karraskari, mustelido eta katu basatu hiltzea da xedea. *Predator Free New Zealand* deitu dute ekimena, ekologistak, filantropo dirudunak, Gobernua, baserritarrak, teknologia berrien konpainiak, inbertitzaile taldeak... eskuz esku lanean jarri dituen ekimena. Baina arratoirik, zarigueiarik edo erbinuderik gabeko Zeelanda Berri bat, beti-betikoa, posible ote da? Oraingoan, behintzat, badirudi baietz, serio doazela. Harrapari inbasoreen izurria ezin kontrolatuzkoa eta populazioaren kontrol iraunkorren politikaren porrota aitortuta, izurria guztiz desagerrarazi baino beste politikarik ez dagoela erabaki dute.

XXI. MENDEKO LANGINTZA

Izurriak deuseztatzea ez da kontu berria pertsonentzat, ezta atzoko kontua ere. Historian atzera eginez, Erdi Arotik harago eta honago, makina bat izurri aurre egin behar izan dio gizadiak. Trampak, pozoiak, toxinen airezko dispartzioa, denak probatu dira. Kiwien oraingo saioan, baina, izurriak suntsitzeko teknika XXI. mendera egokitu nahi da, punta-puntako teknologia, sentsoreak, irrati-seinaleak eta hodei konputazioaren bitartez mugikorretara bidalitako oharrak oinarri hartuta.

Teknologiarekin batera, proiektuaren berme, jendearen parte hartzea ezinbestekoa

izango da, bazter guztietan ak-tibatuko den komunitatea. No-la funtzionatuko luke? Zero Invasive Predator konpainiarekin elkarlanean, armarik eta pozoi-rik gabeko ideia gauzatzean, ze-ra landu dute: *À-peu-près*, hala-ko baserri, beste horretako etxola edo herri hartako auzo apartatuenean bizi zarela ima-jinatu. Eta bat-batean mugiko-rra soinuka hasten zaizula pol-tsikoan. Eta mezu hau jasotzen duzula: “Bart erbinude bat zure baratzetik pasa da. Ehun me-trotara dauka habia. Hil itzazu denak, mesedez!”.

Ehun milioi dolar baino gehiagoko aurrekontuagoo duen egitasmoaren teknologia ez da txantxetakoa. Gurina, ka-kahueteak edo kakao krema ipintzen dute zarigueiak, arra-toiak edo erbinudeak inguratu eta sentsoreak dispara daitezen. Ez da zepoa jarri eta zain gera-tzea. Sentsoreak disparatzean irrati-seinaleak zabalduko dira, “sudur elektronikoen” sare ba-ten baitan, harik eta mustelidoa edo arratoia habi edo gordele-kura segi arte. Lokalizazio zeha-tza lortuta, satelite bidez baso-zain eta bertako jendeari pasako zaio, testu mezu gisa. Hil, ku-maldi osoa, familia den-dena. Saio praktikoek oso emaitza po-litak eman dituzte eta droneak ere probatu dituzte. Etorkizune-an are gehiago erabiliko direla ere aurreratu dute.

IMAJINATZEA LIBRE

Euskaldunok ere ezagutzen du-gu zertxobait izurriez. Edo eza-gutu beharko genuke. Badaki-gu, esate baterako, tranpekin harrapatzeko erbinudea baino animalia makurragorik ez dela, hura bezain animalia azkar eta iheskorrik nekez topatuko du-gula. Historian dokumentatuta daude izurriek gurean eragin-dako hondamendi batzuk, bel-tzak eta gorriak pasatutakoak baitira gure arbasoak. Zeelanda Berrian *Zero Predator*, bada, Euskal Herrian Zero Zabor; es-perientzia praktikoak ekuazio erradikalen eskutik planteatzen badugu esperientzia on eta txarrik. Hortxe dugu, adibi-dez, Asiako liztor puska gurean

Harrapari den-denak hil nahi izateak ezohikoa eta krudela dirudi. Baina Zeelanda Berriko animaliek eta landaretzak harraparirik gabeko milioika urteko eboluzioa izan dute

Karraskari, mustelido, katu basatu eta zarigueien kontrol iraunkorrek porrot egin du, hegaztien desagerpenak ez du etenik: estrategia aldatu ezean ez da salbatzeko ezer geratuko



Kinka larrian diren kiwi, takahe eta kōkako hegazti endemiko eta ikonikoak. GAUR8

gozo-gozo, gure erleen trage-diarako, urtetik urtera habi eta lur eremu berriak hartzen.

Imajinatzen hasita, imajina dezakegu denetan munduko animalia arrisksuena ate joka dugula. Hots, *Aedes Aegypti* eltxoa. Zika, dengea eta beste su-
kar gaizto askoren eramailea. Aspaldi atera zen Brasilgo Riotik Europarantz eta onartu beharko dugu, eta prestatu, denbora kontua dela etxeraino sartzea. Munduan zuzenean mehatxa-tzen dituen 4.000 milioi pertso-nen artean gaude euskaldunok. Ez dugu aparte jaten; kuadrilla berekoak gar, alegia. Edo konpa-razio baterako, Erriberan dugu jada, erabat nafartuta, Asiako ti-gre eltxoa, *Aedes Aegypti* eltxoa-ren lehengusua, eta, potentzial-ki, gaixotasun zitalen eramailea.

Eta praktikatzen jarrita, prak-tikatu beharko genituzke izu-rrien kontrako deuseztatze me-todo edo tresna berriak. Izurria ez delako inoiz izan Erdi Aroko kondaira bat, ezta izango ere. Zeelanda Berrian zenbakiak egi-nez eta esportazioari begira ari dira, izurriak desagerraraztea negozio interesgarria dela kon-sideratuz. Kapital diziplina bat, helburu neurgarriak, inbertsio irizpide argiak, teknologia be-rrien aplikazio iraultzaileak, de-nak imajinatu dituzte. Denak imajinatu beharko ditugu. De-nak, edozer, toxinen airezko dis-pertsio indiskriminatu eta ga-restia baino lehen.

HARRAPARIA, IZURRI

Aipatu bezala, saguzar espezie bakan batzuk kenduta, odol be-roko harrapari ugaztun guztiak inbasoreak dira Zeelanda Be-rrian. Broma gutxi, denak hilt-zea erabaki dute. Haien nazioa-ren nortasunaren muineko animalia eta landare kutunak kinka larrian utzi dituzte harra-pariok. Urtero-urtero, izan hel-du, txita ala arrautza, milioika hegazti hiltzen dituzte. Denetan erasotzaileen, hilgarrien, hon-damendi handien eragilean, mustelidoak (bereziki erbinu-dea), zarigueiak, arratoiak eta katu basatuak.

Egia da, erbinude, arratoi, za-rigueia, sagu, katu basatu... den-

denak hil nahi izateak krudela dirudi. Ezohikoa. Egia da, hala-ber, “munduan lehen aldiz” for-matuan saldu dutela, balentria nazional lez, kasik gizakia ilargi-ra iritsi zenekoaren pareko. Mila milioika ugaztun desagerraraz-tea asko da, bai. Gauza jakina da, ordea, eta eztabaida ez da kapri-txosoa, egitasmoak bi salbues-pen izango dituela: familiako maskotak (basatu eta berezko ehizarako sena gara dezakete-nak) eta gizakia, bi hankako munduko ugaztun harrapari arrakastatsuenak.

Edonola ere, hegorik gabeko hegazti endemikoen harrapari handienak zarigueiak eta erbi-nudeak dira. Zarigueia, hain irri-garri eta adorablea dirudien ani-malia, 1911. urtean sartu zuten Zeelanda Berrian larru industria garatzeko asmotan. Kiwi ehizta-ri amorratua da, baina. Helduak, txitak, arrautzak... denak jaten ditu, baita kiwiak jaten dituen zizare eta intsektuak ere, denak barrura! Erbinudea, aldiz (hu-doa eta erbinude zuria bezalako beste mustelidoak ere badaude-la ahazteke), 1800. urtean sartu zen Zeelanda Berrian. Bizitzaren ironiak eta logika perbertsoak zer diren! Zertarako eta untxi izurria kontrolatzeko, espezie sartze desastre bati sartze desas-trosoago batez erantzunez! Bis-tan da, hegorik gabeko txitak ehizatzea (bere pisua baino bost aldiz handiagoa dutenak ere hilt-zen ditu!) edo arrautzak jatea untxia harrapatzea baino erra-zagoa da erbinudearentzat. No-rentzat eta ehizatzen ikaragarri eraginkorra eta ehizatua izaten batere erraza ez den kreatura eder honentzat.

Karraskarien artean, lau espe-zie zenbatzen dira Zeelanda Be-rrian: Kiore arratoia (maoriek sartutakoa eta zenbait tribuk gurtutakoa), Norvegiako arra-toia, itsasontziko arratoia eta etxeko sagua. Maoriek, Poline-siatik 1300 inguruan Zeelanda Berrira heldutako lehen giza-kiek, Kiore arratoia ekarri zuten beraiekin, jateko erabiltzen zu-tena. Baina berehala hedatu zi-ren, intsektu, lurreko habien arrautza eta bestelakoekin elika-dura ez zitzaaien-eta falta.



Karraskariek ez dute kiwia zuzenean ehizatzen, baina zinez min handia egiten diote. Ez bakarrik kiwien arrautzak jaten dituztelako, kiwien elikagai eta basoen birsorkuntzarako ezinbestekoak diren fruituak janez izugarri kaltetzen dutelako ekosistema, baita kiwiak ehizatzen dituzten harraparien elikagai direlako ere, erbinude edo katu basatuen populazioak mantentzen lagunduz.

Trikuak ere badira. Izatez ez dira karraskariak baina bai inbasoreak. Eta ezin dira aipatu gabe utzi. Trikuak ez dietelako muzin egiten kiwien arrautzei, eta, batez ere, kiwiaren oinarritzko elikagaien (zizareak, zomorroak, fruituak...) jatun amorratuak direlako.

Munduan espezie inbasoreekin dagoen arazo zitala kontuan hartuta, produktu eta teknika berriak eskatzen dituen egitasmo erradikal honek merkatu-nitxo handia sortuko omen du

Tranpak, uxaldiak, barne hemorragien eragile diren antikoagulatzaileak... denak beharko dira milioika animalia hiltzeko. Den-denak, airetik dispertsatutako dioxinak kenduta

Kiwiak Zeelanda Berriko psikologia nazionalaren muinean daude, ugaztunekiko milioika urteko isolamendutik eratorritako bakantasuna dela-eta.
GAUR8

Azkenik, katu basatuen kasua dator. Ehiztari apartak dira, hegorik gabeko hegaztien amesgaizto. Beren populazioa asko handitu da azken urteotan eta katu maskotekin nahastu egiten dira, elkarkidetzak josten dituzte. Kostako da, kostako denez, katu basatu den-denak desagerraraztea.

Dudarik ez, Zeelanda Berriko arratoi, zarigueia eta erbinude den-denak desagerrarazita ere, katu maskotek biodibertsitatearen lehen mailako mehatxu izaten jarraituko lukete. Ez dirudi sinesgarria, horrenbestez, harrapariz libre den herrialde bihurtu nahi izatea etxeko katu mordoa izanik: maskota ala ez, katua beti katu. Katuok baso eta ekosistema natiboetara sartuko balira, akabo. Beste behin, harraparirik gabeko asmoa, izurri deuseztatze programa erradikala, herren.

DENA ALA EZER EZ

Datuak beldurgarriak dira. Harrapariok sartu zirenetik, Zeelanda Berriko hegazti endemikoen laurdena desagertu da, eta geratzen diren gehienek justu-justu eusten diote, harraparirik gabeko urrutiko irla txikietan babestuta. Gauzek martxa ber-



KIWIAK HEGOAK NOLA GALDU ZITUEN AZALTZEKO LEGENDA

Maorien tradizioan bizidun guztiak Rangi-nui (Zeruaren Aita) eta Papa-u-a-nuku (ama lurra) kreatzaileak batu izanetik datoz. Kreatura eta natur baliabide oro beren bi umeen (Tane-mahuta eta Tangaroa) ondorengoak dira. Tane-mahutak sortu zituen txoriak, basoak eta gizakiak. Eta tradizioaren arabera kiwia bere ume zaharrena izan zen.

Maorien legendaren arabera, Tane-mahutak behinola txori guztiak deitu zituen batzarrera. Zuhaitzen sustraiak zomorroek jaten zituztela eta gaixotzen hasiak zirela ikusita, ea haien artean basoko alturetatik lurrera jaisteko boluntariorik bazen galdetu zien. Tui hegaztiak lurreko iluntasunak, eguzkitik hain urruti egoteak beldurtzen zuela esan eta ezezkoa eman zuen. Pukekoak ere, basoko lurra hotzegia eta giroa hezeegia iritzita, ezezkoa eman zuen. Pipiwharauoak, bere habia egiten lanpetuegi zegoela-eta berdina esan zuen. Kiwiak, baina, baiezkua eman zuen.

Horrek asko poztu zuen Tane-mahuta. «Ohartzen al zara potolo hazi, lurreko zomorroak bilatzeko hanka indartsuak izan, zure luma koloretsuak galdu eta ezin izango zarela inoiz basoko altueratara itzuli?» ohartarazi zion Tane-mahutak, baina, kiwiak, hala ere, baiezkoan segitu zuen. Orduz geroztik, tuiari eztarriaren pean bi luma txuri hazi zitzaizkion, koldarkeriaren seinale. Pukekoa betiko biziko zen zingiretan, bere hanka busti-bustiekin. Eta pipiwharauoak ez zuen gehiago habiarik egingo, kukuak bezala bere arrautzak beste hegaztien habietan utziz.

Kiwiaren sakrifizio handiak txori denetan maitatuena bihurtu zuen. Basoa zaintzeko Tane-mahutari eman zion laguntzarekin, zeelandaberritarrek egun hainbeste miresten dituzten nortasun ezaugarriak erakutsi zituen kiwiak: osotasuna, umiltasuna, leialtasuna, konpromisoa eta kuraia.

Zeelanda Berria ugaztun harrapariz libre den herria izateko asmoak bi salbuespen ditu: gizakia eta maskotak. Katu basatuak hil baina katu maskotak errespetatzeak ba ote zentzurik?

Zeelanda Berria eboluzioaren experimentua da, hegaztiak dominatutakoa. Dinosauroekin batera ugaztunak ere desagertu balira mundua nolakoa izango litzatekeen erakusten duena

dinean jarraituta, belaunaldi batean edo pare batean kiwien lurraldea kiwirik gabekoa izango dela kalkulatu da. Herri bat batu eta identifikatzen duen sinboloa denez, egoera emergentzia nazionalekoa dela esan daiteke, bai.

Uharte isolatuetakoa santutegietan hazten diren hegaztiak ez dagoela egungo maldan beheari aurre egiterik, ez zaiola buelta ematen egungo joerari aipatzen dute adituek. Nahitaez libratu behar direla harrapariz bi uharte handiak, ez dagoela erdibiderik, dena ala ezer ez bat dela.

Horrela denik ez da hemen ukatuko, noski. Pentsatzen jarrita, baina, animalia edo landare, espezie inbasoreak nonahi daukela ere esan daiteke. Denok gaudela espezie inbasorez inguraturik. Hau da, orain guztiz desagerrarazi nahi dituzten espe-

zie inbasoreok Zeelanda Berria inbaditu izan ez balute, agian, bertako espezieek inbadituko litzuketela beste lurralde batzuk. Igual planetaren destinoa hori da. Espezien talkak etengabekoak izango dira etorkizunean eta biodibertsitate handiena gordetzen duten irletako animaliak ordainduko dute beti prezio altuena. Egoera ikusita, hori bai, erantzun bat izan daiteke Zeelanda Berriak mahai gainean jarritakoa.

Badira ere, zertarako ukatu, bidezkoztat jotako egoera historiko bateko ekosistema berritze-ko saioak kritikatzan dituztenak. Besteak beste, batere praktikoa ez direlako. Ekosistema berrien errealitatea onartu eta Lurreko espezie guztien kudeaketa planifikatu behar dela uste dute, porrotera kondentatuko espezien kontserbazio poli-

tiketan tematzeko. Zeelanda Berri-rik datorren egitasmo honen aurrean, kontu denetan gertatzen den bezala, ateoak eta sinestunak daude, ortodoxoak eta heterodoxoak.

Harraparirik gabeko Zeelanda Berria lortzea ez da erraza izango. Inolaz ere. Baina santutegien bidea lehenetsi duten naturalistek diotenez, hori da dagoeneko egiazki jokoa alda dezakeen

Zeelanda Berrian diren lau sagu espezieek, katu basatuak eta erbinudeak urtean 25 milioi hegazti hiltzen dituztela diote adituek.
GAUR8

apustu bakarra. Bai, desafio aparta da benetan. Maorien tribuetatik, baserritarretik, ekologista erradikal eta filantropo aberatsetaraino, denak lanari lotu eta muga guztiak pasatuko dituen desafioa. Ez da erraza izango, baina ahalegina martxan da dagoeneko. Merezi du. Besteak beste, txoriari hegoak ebakiz gero, ez delako inoiz kiwi bat izango.





Oier Gorosabel - @txikillana
Fisioterapeuta eta osteopata

Osasun aseguruak eta «txurriterapia»

Lehenago idatzki izan dut he-
men osasun aseguruari bur-
ruz. Berriki argitaratutako
erreportaje batek agerian
utzi du espainiar Estatuko
fisioterapeutek horiek du-
gun arazo larria. Mutuaren baten bitar-
tez terapia fisikoa egiten duzun pazien-
tea bazara, hau zuretzako ere interes
handiko gaia da, zure tratamenduaren
kalitateari bete-betean eragiten baitio.

Funtsean, arazoa honetan datza: osasun aseguruak gero eta gutxiago ordaintzen digute guri, zure tratamendua egiteagatik. Gure lanaren bokazio kutsuagatik-edo, enpresa hauek badakite osagileok, gutxi zein asko kobratu, jendea ahal denik eta ongien artatzen saiatzen garela. Hori dela eta, torlojuak estutzen dabilta aspaldi, batzuk zakarki (tarifak zuzenean jaitsiz) eta beste batzuk leunki (tarifak igo gabe). Urteak daramatzagu zenbakiekin malabarismoak egiten. Gure fisioterapia zentrorra, esate baterako, denetik etortzen zaigu: aseguruakoz pazienteak zein beren kontura datozenak. Orain arte, beti saiatu izan gara paziente mota guztiak ongi hartzen; nahiz eta mutuatik datozen pazienteengatik askoz ere gutxiago kobratu (kasu batzuetan partikularrek baino bost bider gutxiago, tratamendu berberagatik), horientzat ere gutxieneko kalitatea ziurtatu izan dugu. Hamar bat urtean, baina, sistema honen ondorioz aseguruetako irabaziak ia desagertu egin zaizkigu; eta beherantzko progresioak etenik ez duenez, azken urteetan galerak izaten ere hasi gara: askotan, paziente horiekin diru gehiago gastatzen dugu aseguruak ordaintzen diguna baino. Eta, bokazioak bokazio, osagileok ere etxeko gastuak ordaindu behar izaten ditugunez, bi alternatiba ditugu: paziente gehiago hartzen hastea (orduerok 5-6, gutxienez) edo aseguruekin lan egiteari uztea.

Guk bigarren aukera hartu dugu. Zorionez, beren kontura datozen paziente asko ditugu, eta honek bakarrik asegu-ruekin lan egiteak dakarren mendeko-tasunetik libre uzten gaitu. Hori dela eta, azken hiru urteetatik hona hainbat mutuarekin genituen hitzarmenak eten ditugu, eta ez dira azkenak izango: itxu-

ra guztien arabera, gure eskualdeko kooperatiben osasun aseguru ezagun baten txanda ere laster etorriko da, gauzak asko aldatzen ez badira behintzat. Asko sentitzen dugu gure pazienteengatik, baina tamalez, gaur egun errentagarrigoa zaigu kontsulta ixtea eta estudiatzen gelditzea, mutua hauetako paziente bat hartzea baino. Ez gara bakarrak: gero eta gehiago dira soluzio hau hartzera derrigortutako fisioterapia zentroak.

Osasun Publikoak eskaintzen duen fisioterapia ere hutsaren hurrengoaren, praktikan gurea luxuzko produktu bihurtzen ari da. Horrela jarraituz gero, ordain dezaketeneke baka-rik eskuratuko dute tratamendu ona; besteek, berriz, hilabeteetako itxaron zerrendetan sartuko dira edo «txurritaria» saioetara kondenatuko dira.

tuak izango dira (pazienteak txurroak bezala tratatzera, jo-eta-pasa, denak berdin), edo ikasketa ofizialik gabeko masajisten erruleta errusiarrean sartu beharko dira...

Barkatu apokaliptiko jarri izana, baina ez diot egoerari irtenbide erraza ikusten. Profesionalon aldetik gauza gutxi egin dezakegu: Konpetentziaren Defentsarako Legea dela eta, Espainian ezin gara prezio horiengatik publikoki kexatu. Pazienteok, berriz, aseguruai fisioterapia tratamendu duina exijitzeko aukera duzue, zuek ordaintzen duzuen diruaren zati handia bitartekariak hartzen baitute, fisioterapeutarengana ailegatu barik. Zentzu horretan, Frantzia indarrean dagoen sistema askoz ere zuzenago da, profesional estimatuak gara eta pazienteek errazago dute fisioterapeuta edo kinesioterapeutaren zerbitzuak lortzea. •



Osasun Publikoak eskaintzen duen fisioterapia hutsaren hurrengoa da. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi**

Estatuak emandako kolpeen markagailuan ez neurtu

Segur aski esajerazioa izango da, baina ez da munduan estrategia politikorik asteotako gertakari zaparradari eutsi eta buru argi segitzeko gai denik. Presta dezakezu zure bidea, zure militanteekin eta euskal jendearekin lantzeko eta ibitzekoa, patxada eta temple aski dituenena... Hartara, mila bilera egin ditzakezu, gauzak oso argi utzi eta orotan irakurketa distiratsuen egin... baina gaitz, nekez, ezinezkoa da azken asteok utzitako irudi eta errealitateak digeritzea. Are, digestioa egin eta gero pralin gozo baten gisa askatzea. Eta ezer gertatu ez balitz bezala aurrera egitea.

Batek imajina dezake Antiguako zubitik Donostiako udaletxeraino su artifizialak ikusten dabilen jende oldaren kontra kamioi batekin egindako sarraskia? Edo, zeinek imajina zezakeen, *Brexit*-aren ondoren, Europar Batasuneko kide izatea prozesu independentisten pizgarri izan zitekeenik? Zeinek imajinatu Ekialde Hurbileko “demokrazia handienaren” eta NATO aliantzako bigarren armada handienaren jabe den herrian Twitter eta telebista bidez jarraitzeko moduko estatu kolpea bertatik bertara ikustea? Estatu espainiarra nolakoa den ezagututa, bestalde, nola ez imajinatu Arnaldo Otegi lehendakari gaitz izatea eragozteko direnak eta bost ikustea bigarrenengo? Aurreneko aldian, “Bildu olatua” deitutakoaren atarian, lehendakari Iñigo Urkullu, Patxi Lopez eta Arnaldo Otegiaren artean erabaki behar zenean, zein injustu eta lotsagabe sartu zuten preso! Besteak beste, Otegi irabaziko balu, sinbolikoki eta politikoki ETak irabaziko zuen beldur zirelako. Eta hala ere, frantsesek dioten legez, *il faut faire avec*. Dagoenarekin egin behar da aurrera.

Aurrez aurre dugun Estatuaren modukoa da eta demonstratu du demonstratu duenez, ankerkeria infinitua izateaz gain, bere zilegitasun sistemikoa indartzen ez duen ezer ez duela demokratikoki onartuko. Epe motzeko garaipenaren marko diskurtsiboan neurtu ezin daitekeen ezer. Muga-mugara eraman nahi duela egoera, horrek gauzak ezinezko egingo lituzkeelakoan. Baina, sarri, muga-mugara jokatzek, gauzak bere kontrako bilakatzeko ditu. Euskal presoen egoerarekin bezala, EH Bilduren lehendakariarekin ere, Estatuak begi bistako

abantaila konpetitiboa du: aparatu judiziala nahieran erabil dezake. Horrek egoera kontrola dezakeela pentsatzera eramaten du, denborak markatzera, arauak finkatzera edo arauen gainetik salto egitera. Horrela, ezker abertzalea bidetik ateratzen duela, bere borondate kolektiboa likidatzen duela eta, bide batez, Euskal Herriari, prozesua egotekotan, nola garatuko den erakusten diola uste du: Estatuaren eta ezker abertzalearen arteko kolpe trukaketa baten gisa, “nerbioen gerra” etengabea. Askotan idatzi dut eta berriz idatziko dut: zeinek galtzen du “nerbioen gerra” batean? Ba, hain zuzen, nerbioak galtzen dituenak. Norbere erabakiengan eta analisisien zuzentasunean duda eginez konbentzimendu propioa zailantzan jartzen duenak.

Independentismoa beti ispilu berean, plano finko bati beti lotuta, itsututa, nahi luke Estatuak. Euskal Herrian aurrera egiten den ala ez berak ematen dituen kolpeen

Herritarren kezkak adituz, interpretatuz, pedagogia positiboa landuz neurtu behar dira arrakastak. EH Bilduren hautagaitzari darion prestakuntza, freskura eta zapore herritarra akuilu, baikortasuna ez da falta

markagailuan neurtzea, independentismoa beste planoetako egoerak alboratzera behartzea. Eta hori lortuko balu, egoera eta mentalitate kaskarrean geundeko. Prozesu politiko oro ispilu joko bat baita. Ikuspegi orokor baten baitan, denetan jarrai. Horizonte sakon baten jabe eta, iraganean bezala orain eta gero ere, ez dela batere erraza izango jakitun. Oinarri militantea da ispilu bat. Etxekoak. Aliatuena da beste bat. Amets ezberdinak izanagatik gurekin ohe bera konpartitzen dutenak. Gure herriarekin, euskal jendearekin egiten da prozesua. Ispilu inportantea da. Herritarren kezkak adituz, ongi interpretatuz eta pedagogia positiboa landuz. Orain eta hemen, plano horretan eta beste epe batzuetan neurtu behar dira arrakastak. EH Bilduren hautagaitza ikusita, darion prestakuntza, freskura eta zapore herritarra egiaztatuta, baikor izateko arrazoiak ez dira falta, ez horixe. •

GURPILTXOEN BULTZADAZ

Lasterka edo paseoan, han-hemenka dabiltza patinatzaileak gurean ere

 **GIZARTEA** / Oihane Larretxea de la Granja

Herri eta hirietan, bidegorriak nahiz etorbide luzeak zeharkatzen ikusten dira, gero eta gehiago, patinatzaileak. Talde handietan ibiltzen dira sarri eta bata bestearen atzetik ziztu bizian igarotzen dira geure begien aurretik. Leire Vegas donostiarrak Tolosan ireki berri du patinetan espezializatutako Gipuzkoako denda bakarra: Ipar Roller.

Gurpiltxoei esker lortzen den abiadurak askatasun sentsazioa areagotu egiten du, gorputzak arin egiten ditu eta ez dago zoruarekin marruskadurarik labaindu egiten delako pati-

natzailea. Suabe, goxo, leun, hanka bat luzatuz, gero bestea... Euskal Herriko hiri eta herrietan asko zabaldu da patinen gainean ibiltzeko zaletasuna, bereziki azken hiruzpalau urteotan, eta pixkanaka patinatzaile taldeak sortu dira, deialdiak egin eta elkarrekin kirol honetaz gozatzeko. Jendea ezagutu eta gurpilen gainean trebatu. Hasiz gero, harrapatu egiten du.

Leire Vegas donostiarra handik hona patinatzen ibiltzen den horietakoa da. Orain urtebete pasatxo murgildu zen mundu honetan eta liluratuta du. Are gehiago, gaur egun bere afiziotik ofizio egin du: iragan ekainaren 10ean Tolosan zabaldu zuen Ipar Roller, patinetan espezializatutako Gipuzkoako denda bakarra. Mota guztietako patinak saltzen ditu, modalitate guztietan aritzeko, arruntenetik apetatsuenara. Skate eta patineteak ere baditu, baita beharrezkoak diren piezak eta osagarriak: kaskoak, motxilak, sokak, torlojuak, gurpilak, hauek kokatzeko gidak... «Hemendik patinatzeko beharrezkoa duzun guztiarekin atera zaitezke», dio.

Gipuzkoan sumatu zuen hutsune bati erantzuten dio dendak, inguruan ez dagoelako halako dendarik. Kontatzen duenez, gertukoenak Gasteizen eta Iruñean daude, eta patin zehatzak erosteko bakarrik ez, pieza txikiak, freno bat edo torloju bat erosteko ere haraino joan beharra zuten inguruko zaleek. Ez zen ez errentagarria ezta batera eroso, jakina. Bi hilabete bete ditu oraintxe, eta pozik dago harrerarekin. «Erreferentzia

izatea da helburua, eta jendeak urrutira joan behar ez izatea. Tolosa lurraldean ondo kokatuta dago, eta Azkoitia, Donostia, Lasarte eta Andoaindik jende asko dator. Leku guztietatik datoz. Hutsunea bete nahiko genuke», dio ilusioz.

Patinaje elkarteen arteko zubi lana ere egiten du Ipar Roller dendak, alegia, jendeak informazioa bilatu nahi izanez gero, bertan galdetuz izan dezake elkarre, ikastaro, jardueren... berri. «Jendeak kalean ikusiko zuen jendea patinatzen, eta bat egiteko gogoia piztuko zitzaion bati baino gehiagori, baina litekeena da non galdetu ez jakitea».

Dendetan betidanik aritu da lanean Leire Vegas, moda sektorean, eta ehungintzak patinatzaileen munduarekin zerikusirik ez izan arren, badaki zer den erosgaiak bilatzea, banatzaileekin tratatzea... Ezberdintasuna markatzea, edo ezberdina izatea beti da aldeko ezaugarria. Publikoa ez da oso zabala, oso zehatza baita, baina dagoen eskaera asetzeko adina eskaintza ez dagoenez, kontent dago momentuz lortutako emaitzekin. «Halako

hamar denda baleude, akaso ez legoke denontzat negozioa, baina oraingo bakarrak izanik...».

Patinei dagokienez, prezioak askotarikoak dira, bakoitzak gastatu nahi adina. Arruntak, patinatzen hasi nahi dutenentzat, 140 euroan baditu. Hortik aurrera, poltsikoak uzten duena. Adi-

Poltsiko guztietarako egokitutako kalitatezko patinak eskaintzen dira gaur egun, 140 euroan hasi eta 1.300 euroko muga gainditu arte. Diseinua eta kalitatea asko lantzen dira

Dibertigarria eta osasuntsua dela diote zaleek, bakarka nahiz taldean egiteko. Nahikoa da motxila batean patinak sartzeari bakoitzak nahi duenean jantzi eta kendu ditzake





Leire Vegas, Tolosan ekainean zabaldu zuen dendan. Beste irudietan, bertan topa daitezkeen patin eta gurpiletako batzuk.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

bidez, garestienak 1.300 eurokoak dira, diseinua bakarrik ez, material onak ere ordaindu egiten direlako: larruzko botak, karbonoz egindako piezak... Asite honetan bertan derrapatzean txinpartak egiten dituzten gurpilak jaso dituzte dendan, eta argia egiten dutenak ere badaude. Gurpilena ere mundu zabala da. Bada 30 eurogatik lau gurpiltxo erosteko aukera edo sei 200 eurogatik. Eta bitxia edo ez, dioenez, patinatzaile askok, zale amorratuak direnek, ez dute patin pare bakarra, bat baino gehiago baizik, modalitate bat baino gehiago praktikatzeko dutelako, eta estilo bakoitzak bereak eskatzen dituelako.

Produktuok guztiak bilatzeko, hain zuzen, lan handia hartzen du Leire Vegasek. Dioenez, mar-

ka etxeekin kontaktua egitea ez da erreza ez daudelako hainbeste. Bereziki, Alemania, Estatu frantsesa eta Txekiar Errepublikatik ekartzen du materiala.

ZALEAK, HAUR ETA HELDU

Une gozoa bizitzen ari da sektorea, gero eta zale gehiago dago, eta txoko askotan elkarrekin patinatzeko elkarteak eta taldeak sortzen ari dira. Vegasen iritziz, azken bost urteotan sumatu da gorakada, baina, aipatzen duenez, orain pare bat hamarkada Tolosan bertan baziren elkarteak, eta munduko txapelketetan parte hartzen zuen tolosar gazte talde bat ere bazen. Bere ustez, gertatu dena honakoa da: eskaintza zabaldu egin da eta edonoren esku dago egun irristaketan aritzea. «Edonor murgildu

daiteke mundu honetan, ikastaro bat jasotzea nahikoa baita bi patinen gainean ibiltzeko».

Elkarteetan edo hauetatik kanpo ibiltzen den jendearen adin tartea horren erakusle da. Haur eta gazte asko bai, baina baita helduak ere. Erretiroa hartu berri dutenak tartean, eta 70

Patinatzeko zaletasunari dagokionez, Kolonbia da buru mundu mailan. Europa iparraldeko herrialdeetan era jarraitzaile asko dago, bereziki izotz gainean aritzen direnak

Irura, Villabona-Amasa, Andoain, Azkoitia, Lasarte-Orian eta Donostian, besteak beste, eskaintzen dira irristaka aritzeko ikastaroak Gipuzkoan, patin eskolen eskutik asko

urtetik gorakoak ere, bat baino gehiago gainera, Vegasek dioenez. Adin tarterik hedatuena 35 eta 45 urte artekoa da. Besteak beste, seme-alabak zaleak direla-eta, gurasoak ere hasten dira. Tolosan ez da batere arraroa hala hastea, izan ere, herriko ikasketxe guztietan, 12 urteak arte, eskolaz kanpoko aukera bezala jarri da patinaketa, Joxe Nazabal Tolosako Irriestaka patin elkarte-ko lehendakariak dioenez.

Kirol bezala atsegin da, diote Vegasek eta Nazabalek, eta horrek, noski, lagundu egiten du kide kopurua handitzen. «Oso dibertigarria da, diziplina asko ditu eta estiloak oso anitzak dira. Gainera, eroso da, motxilan patinak sartu eta bakoitzak nahi duenean jarri eta kentzen ditu, paseatzeko, lasterketak egiteko, lanera joateko... Osasunari dagokionez, ez du eragin kaltegarririk belaunetan, adibidez korrika egiteak izan dezakeen bezala, eta ez du forma fisiko berezirik exijitzen, teknika da garrantzitsua», uste du Vegasek.

PATINATZEN HASTEKO

Irristaketan hasteko gogoia piztuz gero, ondo informatzea eta aholkatzen uztea garrantzitsua da, oso ohikoa omen delako, adibidez, behar dena baino patin handiagoak erostea, horrek ekarriko dituen ondorio eta ara-

zoekein, bai segurtasunari nahiz osasunari dagokionez. «Neurrikoak hartzen ez badira, oinetara behar bezala moldatzen ez badi-ra, oreka penagarria izango da», dio Vegasek. Hala, 80 mm-ko gurpil txikiekin hastea gomendatzen du –azken joera 125 mm-koak dira–, baita bota bigun eta karkasa gogorra hautatzea. Inoiz lehenago praktikatu ez bada, alde zuzenetik ikastaro bat egitea derrigorrezkoa izango da, nozio batuk hartu eta oinarritzko ezagutzak bereganatzeko. Txikitant aritutako helduei ere formazioa jasotzea gomendatzen zaie. Eta aurrekoa bezain garrantzitsua dena: nork bere buruan konfiantza izan eta segurtasu-




Hasiberri nahiz profesionalentzako patinak eskaintzen dira. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

nez aritzea. Edozein kasutan, eta beti, Ipar Rollerren kaskoaren erabilera bultzatzen dute, erorketa txikia izan arren, erortzeko arriskua beti dagoelako. Eta bi-degorri edo espaloietan inor abisatu nahiz izanez gero, jakin badagoela hatzean lotzen den tinbre txiki bat: «Riiiiing...!». Dena pentsatuta dago! Begirada azkarraz sumatzen da patinaren garapena: larruzko uhalez oinetakoei lotzen zitzaizkien oinarri metalikoetatik, atzean zein aurrean bi gurpil zituztenetara. Gaur egun ez lau ezta bost gurpiltxo, hiruren gainean ibiltzen dira patinatzaileak gorputzak aske sentitzeko handik hona irristaka.


IRRISTAKA TALDEA, TOLOSAK BADU ETA BAZUEN PATINETAN IBILTZEKO OHITURA

Tolosako Irristaka roller taldea da elkarrekin patinatzeko Euskal Herrian sortu diren taldeetako bat. 2012an jaioa, gaur egun 100 bazkide pasatxo ditu, eta, generoari dagokionez, oso orekatuta dago proportzioa, edozein kiroletan proposena litzatekeena, izan ere, ia-ia %50 emakumeak eta %50 gizonezkoak dira, Joxe Nazabal elkartearen presidentek kontatzen duenez. Zalantzarik egin gabe, berak ere sumatu du azken urteotako gorakada, eta zentzu horretan aipatzen du Donosti Roller taldeak Gipuzkoan irristaketari emandako hauspoa, Tolosan bertan orain hogeitau urte aritzen zale amorratu taldea ahaztu gabe. «Garai hartan herrian asko landu zen irristaketa», dio. Hala, ez da kasualitatea Tolosan 200 metroko zirkuitua egotea; EAEko eta Gipuzkoako txapelketak egiten ziren bertan. Gorakadak ere naturaltasuna eman dio diziplinari. «Azken lau urteotan aldaketa handia sumatu dugu. Bidegorrietan patinatzaileak ikusten zirenean jendea ikaratu edo harritu egiten zen bitartean, orain erabat barneratuta dago. Hala ere, elkarlana bultzatu behar dugu oinezko, txirrindulari eta patinatzaileok. Adibidez, Tolosatik Ikaztegiatara doan bidean, patinatzaileok ere gure aldetik jarri behar dugu, izan ere, abiadura muga 10 kilometro ordukoa izan arren, entrenatzen ibiltzen direnak 40 kilometro orduko abiadura har dezakete...». Hala ere, elkarbizitza ematen da, dioenez. Egitura faltaz kexatzen dira patinatzaileak, izan ere, zaletasunak gora egin arren, ez dago


berau asetzeko adina azpiegitura. Leire Vegas eta Nazabal berak bat egiten du baieztapenarekin. Gainera, Euskal Herriko klimak «ez du batere laguntzen», eta aire librean dauden skate parkeen erabilera uda sasoiraino baino ez da mugatzen. Gipuzkoa mailan behintzat hutsunea dagoela uste du Nazabalek. Irristaka taldeko kideak astean bitan elkartzen dira, gutxienez, elkarrekin aritzeko, asteazken eta ostiraletan. Horrez gain, Whatsapp taldearen bidez deialdiak egiten dituzte, baten batek patinatzerara ateratzeko asmoa izanez gero, proposamena partekatuz. Taldeetik kanpo ere lan mardula egin dute afizioa sustatzeko. Aipatzekoa da Tolosako ikastetxeetan eskolaz kanpo eskaintzen diren kirolen artean irristaketa eskaintzeko egin duten ahalegina. Lehen aipatu bezala, 12 urte bete arte irristaketa hautatzeko aukera dago. Ondoren, horretan aritu diren ikasleei Irristaka taldeko kide izateko aukera ematen zaie, jardunaldi eta ekimenetan parte hartzeko. Era berean, urtean behin Landetara familia irteera antolatzen dute eta mugikortasunaren astearen baitan ere parte hartzen dute. Ekintza berriak prestatzeko asmoz, iragan hilean lehen aldiz irteera antolatu zuten Tolosan barna, ilunabarrean, eta arrakasta handia izan zuen. Udalarekin harremanetan daude, urtean halako hiruzpalau deialdi egiteko. «Aisialdia partekatze modu polita da, familian, taldean, bakarka... Bakoitzak bere maila aukeratzen du eta horrek lortzen du jendea erakartzea», uste du Nazabalek.



Tolosako Irristaka taldea, irteera batean. IRRISTAKA TALDEA



BERROGEITA BOST URTE DITUZU, UME.
DONOSTIAKO ASTE NAGUSIA HASIKO DA GAUR,
BILBOKOA DATOR GERO... HANDIK AUTOBUSA HARTU
ETA LEKEITIORA JOAN ZAITEZKE ANTZARRAK PERRATZERA.
GERO KALBAIXOAK MUTRIKUN ETA, OHARTZERAKO,
PORRONTXOETAN ZAUDE EGIAN. SAN FERMIN TXIKITOAK IRUÑEAN,
SAN MIGELAK IURRETAN, SAN FAUSTOAK DURANGON...
ZIUR NAIZ LAGUNTZO ASKO EGINGO DITUZULA.
EZ EGIN KASURIK KONTUZ IBILI BEHAR DELA ESATEN DUTENEI.
ESKaintzen dizuten guztia hartu eta barrura!
GOZATU, MAITEA, ETA EZ IZAN ETXERA ITZULTZEKO PRESARIK,
ITZULI NAHI EZ BADUZU ERE, BERDIN DIO.
ANIMO, GUDARI!



zugaz/
art

iRRITZIA:



Unai
ITURRIAGA

ORTZADAR EGUNEROKOA

Egunerokoan biziegi dabilen LGTBIfobia bistaratzeko proiektua abiatu du Gehituk

Lerroon alboan, eskuinera, Bea Gomez, Gazte Gehituko koordinatzailea. Beheko aldean, LGTBIfobia salatzen elkarretaratze bat, Donostian. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

 **JENDARTEA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Aniztasun afektibo-sexuala politikoki zuzenaren marran dabil, akrobaziak eginez. Baina errealitateak kontatzen du homofobia bizirik dela jendartean eta egunero gertatzen direla LGTBIfobiaren ondorio diren erasoak, samurragoak edo latzagoak, baina guztiak eraso. Horiek jaso eta bistaratzeko ireki du Gehituk Ortzadar Egunerokoa.

Gaizki begiratu digute eskutik emanda gindoa zelako. Nire izebak ez nau familia ko bazkarira gonbidatu lesbiana naizelako. Lehengusuak psikologoarengana bidali nahi nau homosexuala naizela aitortu diodanean. Bultza egin didate. Federazioak ez dit mutilen taldean jokatzeko uzten nire nortasun agirian emakumea naizela jartzen duelako. Eskolan jipoitu egin naute.

«Isilpean geratzen den gorroto eraso bakoitza bihurtzen da LGTBI komunitatearen (lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualak) porrot handia,

baita jendarte osoarena ere». Horrekin kezkatuta, eta egunerokoan ematen diren hainbeste eraso homofobo bistara aterata nahian, kanpaina berria abiatu du Gehituk. Ortzadar Egunerokoa ekimena LGTBIfobiaren aurkako proiektua da eta sare sozialetan bidez eraso homofoboak salatzen toki bat eskaini nahi du. Hartara, helbide elektroniko bat prestatu dute (diarioarcoiris@gehitu.org) aniztasun afektibo-sexualarekin loturiko erasoguztietako erasoak jasotzeko: fisikoa, ahozkoa, eguneroko mikrodiskriminazioak... Mezu bakoitzean adina, lekua, zonaldea eta gertaturikoari buruzko iruzkin txiki bat zehaztu behar dira. Izena ez da beharrezkoa,



ekimena anonimoa baita. Bertan jasotako salaketak web orrian eta Gazte Gehituko Facebookean zintzilikatuko dira, jendarteak horien berri izan dezan.

«Proiektuaren helburua edozein motako diskriminazioa, txikia izanagatik, ikusgarri egitea da. Ikusgarri egin eraso horien garrantziaz jabetzeko eta horien aurrean erantzun soziala bultzatzeko», zehaztu du Bea Gomezek, Gazte Gehituko koordinatzaileak.

Azken hilabeteak mugituak izan dira Gomezentzat, Estatu espainiar osoan barna ibili baita bilera batetik bestera Gehituen izenean. «Estatu osoko jendea ezagutzen ari naiz eta konturatu naiz LGTBI komunitatearen kontrako erasoak egunerokoak direla han eta hemen. Jendeak esperientzia pertsonalak kontatzen dizkizu. Esaterako, Toledo-ko mutil gazte batek kontatu zidan nola eskolan bosten artean sekulako jipoia eman zioten. Eraso horren berri ez zen inon eman eta ez zuen inongo ondoriorik izan, biktimarengan eragindako sufrimendua salbu. Horrelakoak oso ugariak dira eta horiek bistaratzeko beharra da-





«Ama!, ez dudala nahi»

Joxean Agirre

Mutikotatik memorian iltzatuta geratu zaizki-

dan oroitzapenen artean badago bat eraso sexistekin lotua. Etxetik hiru bat kilometrora erromeria leku bat zegoen eta hara zer suma gerturatu ginen arratsalde apurretan eszena bat errepikatzen zen: neskek egiten zuten dantza eta mutilak begira egoten ziren. Erromeria bukatzerako iluna izaten zen kanpoan eta gogoan dut mutilak atean jartzen zirela ateratzen ziren neskei etxera laguntzea eskaintzeko, eskatzeko edo beharbada horretara behartzeko, ez dakit. Oroitzapenak lainoak dira, baina irudipena dut neskak ilunpean desagertzen zirenean “Ama!, ez dudala nahi”, esaten zutela, nahiz eta batzuetan pentsatu izan dudana esaldi hori neuk asmatua ote den.

Interesgarria litzateke, garai hartako neskek gaur kontu horiek berrituko balituzte. Itziariko Andutz kultur elkarteak eskatuta “Txan-karta, itzalean geratu zen maisua” liburua idatzi nuenean inguruko erromerien mapa osatu, haietako giroaz hitz egin eta neska-laguntzaren ohituraz ari ginela garaiko emakume baten lekukotasuna eskatu nuen. Gogoan dut neska-laguntzaren inguruko ikuspegi guztiz positiboa, beharbada positiboegia eman zidala. Mariaren Alabak kongregaziotik bota zuten gaztea zela, dantza lotua egiteagatik, eta geroztik miresle eta nobio-gaien kopurua izugarri gehitu zitzaion. Gustuko zituen mutilekin elkartzeko estrategiez, gauetako giroaz eta beste hainbat kontuz hitz egin zuen. Herriko apaiza saiatu zen berriro Mariaren Alaben altzora itzul zedin, baina ez zuen nahi izan. Emakume alaia, bitalista eta karakter handikoa zen eta izango da, seguru asko.

Aurki genitzakeen ikuspegi negatiboagoak ere, seguru bainago giroa okerragoa zela orain 50 urte gaur baino. Hori frogatzen duten datu ugari aurki daitezke atzerrian bederen. Noemi Wolfen liburu batean aurkitu ditut hauek: Diana Russellek 1983n San Frantziskoko 930 emakumeri egindako inkestaren arabera, %44k bortxaketa edo bortxaketa saio bat jasandakoak ziren. Herbehereetan klase ertaineko emakumeei garaitu horretan egindako inkesta baten arabera, %32 esperientzia sexual behartuak izandakoak ziren 16 urte baino lehen. Kanadan lau emakumetik batek behartuta izan zuen bere lehen esperientzia sexuala. 1981ean Londresen egindako inkesta baten arabera, sei emakumetik bat bortxaketa jasandakoa zen. •

goela ikusi dugu. Horregatik abiatu dugu proiektu berria», zehaztu du.

HOMOFOBIA IKASGELA ETA JAIETAN

Gaur egun LGBTIfobia diskriminazio kasu asko ez dira ezagutarazten. Gehituk 2014-2015ean eginiko “Aniztasun afektibo-sexualaren aurreko jarrerak ikasgelatan” txostenak dioenez, ikasleen %82k egoera homofoboren bat ikusi du, ikasleen %24k jarrera homofoboren bat izan du eta %10ek egoera homofoboren bat jasan du. Gazte Gehituko koordinatzaileak garbi dauka, «eraso horiek ikusgarri egitea beharrezkoa da. Ez bada ezagutarazten eta ez bada salatzen, ezinezkoa izango da erreallitate horri buelta ematea».

«Jendea izugarri lasaitu da homofobiaren aurrean. Badirudi egun denok onartzen dugula aniztasun afektibo-sexuala, baina ez da egia. Homofobia existitzen da, bortitza da eta sufri-mendua eragiten du, baina ezkutatu egiten da», iritzi dio Gomezek.

Gazte Gehituk 15 urtetik 30 urte bitarterako kolektiboa hartzen du bere baitan, gutxi gora-

behera. «Nerabezaroa adin konplexua da berez, eta are korapilatsuagoa gerta daiteke LGBTI kolektiboarentzat. Lagunak dira zure bizitzaren ardatza eta askotan ez lagunek ez etxekoek ez dute zure egoera ulertzen. Are gehiago, askotan, norberak ere ez du bere egoera ulertzen, ez daki zer pasatzen ari zaion, zer sentitzen ari den...», kontatu du Bea Gomezek. Ortzadar Egunerokoak eraso baten aurrean larritzen den eta sufritzen duen pertsonarentzat ihesbide bat izan nahi du. «Erasoek min egiten dute, baina are min handiago ematen dute isilean gordezten badira, ez badira kontatzen eta salatzen», gaineratu du.

Udako jaietan eraso sexistak areagotu egiten dira, parrandaren eta ondo pasatzearen aterkiaren pean. LGBTIfobiarentzat ere ingurune aparta dira jaiak, eta eraso homofoboak ugaritu egiten dira. «Iaz, esaterako, mezu bat jaso genuen Gipuzkoako herri txiki batetik. Txarangaren atzetik dantzan zihoazen kua-drilla mordoa eta bat-batean ‘maricon el que no baile’ famatuarekin hasi ziren. Eta denak begira zituela konturatu zen mutil hori. Eta oso gaizki sentitu zen. Tontakeria bat dela pentsa dezakete askok, baina horrelakoak ez dira tontakeriak, pertsona askori sufrimendua eragiten baitiete».

«Isilpean geratzen den gorroto eraso bakoitza LGBTI komunitatearen porrot handia bihurtzen da, baita jendarte osoarena ere». Horrekin kezkatuta abiatu dute Ortzadar Egunerokoa

Helbide elektroniko bat prestatu dute (diarioarcoiris@gehitu.org) aniztasun afektibo-sexualarekin loturiko era guztietako erasoak jasotzeko eta bistaratzeko



Gaizka Amondarain
Irakaslea

Olinpiar Jokoak Zeledonek asmatu zituen

Finitu dira jada Olinpiar Jokoak gasteiztarrentzat azkenean. Eman du asteak eman beharreko guztia eta gehiago. Ibili ditugu maratoiak exijitzen dituen 42,195 kilometroak Alde Zaharretik Txosnagunerainoko joan-etorrietan. Trebatu gara urpean modu sinkronizatuan dantza egiten, lantzean behin buroa ur azalera atera, arnasa hartu eta berriro urperatzeko. Saiatu gara barra gaineko gure gimnasia gaitasunak bere horretan jarraitzen duela ziurtatzen, egin beharreko akrobazia ariketa guztiak ahal bezain txukunen bete eta koltxoneta gainean zutik bukatzeko. Egin dugu salto pertikarekin eguna egunarekin lotu, airean txiribuelta eman eta ohean bizkarrez seko erori arte. Utzi dugu eztarria eta gibel zati bat ikuskitzaren mesedetan. Banatu ditugu banatu beharreko dominak dagoeneko, izerditu dugu izerditu beharrekoa eta ikasi dugu, beste behin, irabaztea be-

zain garrantzitsua dela galtzen jakitea ere. Podiumak, azken finean, interesgarriagoak direla dantza egiteko beste ezertarako baino. Zeledonen jaitsierarekin hasi eta astebete orbitan pasa ondoren, heldu da berriro lur hartu, mozorroak erantzi eta fundamentuzko hiritar izatera bueltatzeko ordua. Gauzarik onenek ere, txarrenek bezala, amaiera bat izaten dutelako beti. Eta atleta bikaina izanagatik, gorputzak bere mugak dituela gogorarazten digulako azkenean.

Postontzian pilatuta zenezkan egunkariak jasotzerakoan konturatu zara, munduak mundu izaten jarraitu duela bitarte honetan, eta funtsean, kanpoan, ezer ez dela ezer aldatu: Europak mehatxupean jarraitzen duela oraindik, bidaiaztera ausartzen den jende uholdearen ondorioz auto ilarak sortu direla Biriaturun abuztu honetan ere, Erdoganek bereak eta bi egiten jarraitzen duela Turkian estatu kolpeak

emandako aukera ezin hobeto aprobatuz, euskaldunok hegaluzearen kanpainarekin nahikoa ez eta beste hauteskunde batzuk izango ditugula irailean, langileak mehatxupean hormaren kontra jarri eta fabrika itxi dutela Zumarragan eta auzoan –susmoa hartua diot honezkero Moncloako alfonbrak beritzen ari direlako ez ote den– gobernu-rik gabe jarraitzen dutela gaur-gaurkoz batzuek, aurretik egositakoa nola jango duten erabaki ezinean, besteek dibortziorako paperak prestatzen jarraitzen duten bitartean. Gasteizen adina atleta elkartu direla Rio de Janeiron, munduko errekorra hausteko asmotan.

Aldez aurretik onartu beharra neukan, akaso, Olinpiar Jokoak ikustea ez dudala gehiegi maite eta nire asmoa ez zela jaiak oso-osorik bertan pasatzea ere. Parranda osteko egunetarako, adibidez, nahiago ditut animaliei buruzko dokumentalak Olinpiar Jokoak baino, entretenigarriagoak iruditzen zaizkit. Eta abuzturako hondartza aukeratuko nuke, dudarik gabe, biharamunean bazterretan sortzen den ozpin usain horren aldean. Olinpiar Jokoetatik zerbait salbatzekotan, hala ere, nik neuk, martxa salbatuko nuke. Ez Fasiok soinuarekin jotzen zuen hura, ez. Korrika egitera ailegatu gabe, ahal bezain azkar ibiltzea helburu duen beste kirol hori baino. Kiroletan kirol, ikuskizunetan ikuskizun. Betidanik deigarria iruditzen izan zaidan zerbait da: atleten aldaka jokoa, oinak une oro lurrean mantentzeko duten kontzentrazioarako gaitasuna... Blusa batentzat ere ezinezkoa litzatekeen zerbait horrelako erraztasunez egiten dutela ikusteak txundituta uzten nau, gaua airean pasa eta hurrengo egunean bereziki. Bosgarren minuturako, ordea, katez aldatzen dut, aspertuta. Jaiekin ere antzeko zerbait gertatzen zait, egia esan, lehenengo bi edo hiru egunekin aski izaten dut normalean, behin martxa hartuta ordea...

Abuztua luzea da oraindik. Gozatu Olinpiar Joko eta zeruko izar iheskorrekin. Datorren urtean Cancunetik jai zoriontsuak opatuz postal bat bidaliko dizuedala zin dagizuet. •



Goitibehera lasterketa Gasteizko jaietan.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } **Garazi Goia**

Lau urteren ostean...

Duela lau urte Pele futbol jokalaria ohiak agerrialdi motz bat egin zuen Londresko Olinpiar Jokoetako itxiera zeremonian eta Riori pasatu zioten ofizialki erreleboa. Aurreko ostiralean, Rioko inaugurazio ekitaldian ikustea espero genuen, baina osasun arazoei egotea oztopatu zioten, antza. Londresen Boyle zinemagileak antolatu zuen ekitaldiaren ostean espektatiba handiak zeuden, baina Riok ez zuen defraudatu. Peleren falta ez zen nabaritu.

Duela lau urte, Londresko Olinpiar Jokoek iraun zuten hamabost egunetan, egunero zutabe bat idatzi nuen. Orain, atzera begiratzuz, orduan esandakoak gogoratuz eta Rioko perspektibatik begiratzuz, gauzak nola aldatu diren errepaso azkar bat egin dut.

Duela lau urte, Jokoen amaieran nire podium partikularra definitu nuen; brontzezko domina Oscar Pistoriousi eman nion, gogor lan eginez gero nahi duzun hori lortu daitekeela frogatu zigulako. Sarah Attar atletak zilarrezko domina merezi zuela pentsatu nuen, Olinpiar Jokoen historian lehenengo aldiz Saudi Arabia ordezkatu zuen emakumezkoa izateagatik. Eta, azkenik, podiumaren gorenean, Usain Bolt jarri nuen. Elkarren segidako bi Olinpiar Jokotan urrea irabazteagatik, Jokotako atleta famatuena izateagatik, une hartan menderaezina izateagatik. Irudikatu, Pistorious, Attar eta Bolt zutik alegiazkoa podium horretan, Rion gauza bera egingo zutela amestuz.

Duela lau urte, Londresen, Ingalaterrako taldeak domina gehien irabazi zituen egunari "Super Saturday" deitu zioten. Siria, krisi ekonomikoa eta orduan denen ahotan zebiltzan beste arazo batzuk estaltzeko balio izan zuen, eta azaleko euforia bat baliatuta egun batzuetan zehar gezurrezko fikzio bat sortu zuten.

Azken unera arte ez genekien Rio prest egongo ote zen. 2009. urtean aukeratua izan zenean, boom ekonomiko baten erdian zegoen Brasil. Ziurrenik inork gutxik aurreikusi ahalko zuen Olinpiar Jokoen atarian atzeraldia sakon batetik ezin aterata egongo zela herrialdea, ezegonkortasun ekonomiko eta krisi politiko bete-betean; eta horrez gain, nork pentsatuko zuen Zika birusak oraindik gehiago areagotuko zuela krisi hori.

Baina, parentesi bat ireki zen aurreko ostiralean.

Olinpiar Jokoek irauten duten egunetan zehar beste errealitate bat sortzen dela dirudi. Hiria eraldatu egin da. Auzo politenak erakusten dizkigute telebistan, jendea irribarretsu dabil, harmonia dago leku guztietan. Auzo berriak sortu dituzte hutsetik hasita, parke handiak. Mundu guztiko albistegiak eguneko domina kontaketa-kin hasten dira. Beste arazo guztiak bigarren maila batera jaitziz, garrantzia kenduz. Eta segundo batzuetan zehar, ahaztu egiten gara arazo guztiez.

Baina, zer gertatu da Londresen utzitako herentziarekin? Instalazio eta etxebizitza berriak eraikitzeke egin zuten inbertsio hura guztia hiriaren ekialdea berpizteko proiektua zela esan zuten orduan. Hiriari beste dimentsio bat emango ziola, denentzat eskuragarri egongo zirela etxebizitzak. Aldiz, atzerriko aberatsen dirua sartu zen eta prezioak igo ziren, eta gehiengo bati ateak itxi zitzaizkion. Atletentzat eraiki zituzten etxe asko arabiar estatu burujabeetako eraikuntza-enpresa batek kudeatu zituen-eta. Eta noski, erosle gehienak ez dira bertan bizi eta

Olinpiar Jokoek irauten duten egunetan zehar beste errealitate bat sortzen dela dirudi. Hiria eraldatu egiten da. Auzo politenak erakusten dizkigute telebistan, jendea irribarretsu dabil

oraindik ere hutsunea nabari da auzo horietan. Betetzea kosta egiten den kirol-instalazio berrien handitasunaren itzalean. "Super Saturday" hartan zeuden arazoekin gogoratuz, Siriako egoera oraindik ere gehiago okertu da eta *Brexit*-ak sortu duen ziurgabetasunak krisi berri baterako ateak ireki ditu. Egongo ote da "Super Sábado" bat aurten ere. Ez dakit, baina behar dugula iruditzen zait.

Nire podium partikularri dagokionez, inork ez zuen imajinatuko Pistoriousek aurtengo jokoak kartzelatik ikusi beharko zituenik. Tamalez, Saudi Arabian, emakumeei oinarritzeko eskubideak ukatzen jarraitzen dute eta Attarrekin egin zuena ahaztu zaigu; bitartean, Attar, Saudi Arabiatik urrun, Kalifornian dago, unibertsitatean, kirola alde batera utzita. Bolt da podiuma errepikatu dezakeen bakarra. Eta, oraindik ere, lau urteren ostean, menderaezina dela pentsatzen jarraitzen dut. •

«Europar Batasuneko politiken aurrean, ausardia behar da, eta informazioa»

Ingeniari-tzan doktorea da, baina ekonomiak erakarri izan du gehien. EHuko irakasle erretiratu da, baina bere benetak «afizioa» utzi gabe, UEUko Ekonomia Saileko kide gisa Diru Teoria Modernoaren eta haren proposamenen berri ematen jarraitzen baitu. Besteak beste, horretaz idatzi ditu zenbait liburu, betiere euskaraz, hala nola “Moneta teoria berri-rantz” (UEU, 1999) edota “Diru Teoria Modernoa eta finantza-ingeniari-tza” (UEU, 2013).

Ezohiko krisian omen gaude...
Krisi hau, nahita eragindakoa izan da. Botere ekonomikoa dutenek, batez ere Wall Streeteko banku nagusiek, eragindakoa. Zergatik diogu hori? Alde bate-tik, teoria bat dagoelako, baina, beste batetik, eta ni ez naiz bate-re poliziazalea, FBI Ameriketako Estatu Batuetako Ikerketa Bule-go Federa-leko kideek, ekonomia nola zegoen ikusita, herrialdeko senatari batzuei ohartarazi bai-tzieten zaborra saldu eta erosten ari zirela, eta hura puztu, agertu eta lehertu egingo zela. Eta FBI-koak ez dira ekonomian adituak. Hala gertatu zen azkenean eta Wall Streeteko banku nagusiek Gobernuari laguntza eskatu zio-ten, prezioak puztu zituzten, in-flazioa sortu, baina ekonomia erreala ukitu gabe. 1980an, bilioi bat dolar mugitzen zuten egune-ro, horrelako produktuen sale-rosketan, ezer produzitu gabe. Eta finantza-kapital hori handi-tuz, biderkatuz joan da. Horren aurrean, Tobin zerga delakoa ezarri zuten, baina hura adabaki bat baino ez zen izan.

Europako bankuek ere jakingo zuten hori.
Europako bankuek pagotxa iku-si zuten. Eta produktu horiek ekarri zituzten, saldu eta erosi, kreditua luzatu... Gero AEBetako bankuek porrot egin zuten eta hona etorri zen porrot hori.

JOSEBA FELIX TOBAR-ARBULU EKONOMIALARIA

«Eragindako» krisiaren ondorioz Europak hartu zituen neurri hertsien aurrean, hordagoa bota beharra dagoela dio Tobar-Arbuluk: defizit muga kendu edo «bagoaz».

Xabier Izaga Gonzalez



Atzean airea baino ez zegoelako. Zentzu horretan esaten da era-gindakoa izan dela krisia, eurek bazekitelako, baina bazekiten norengana jo, dirua daukana-rengana, hain zuzen. Hori Fed AEBetako Erreserba Federala da, banku zentral guztiek bezala, di-rua ordenagailuz egiten duena. Kontua da bankuek jasotzen du-tela dirua, ez langileek, ez en-presek, ez arlo publikoak... Bene-tan ikaragarria da, alderantzizko sozialismoa. Eta Europako ban-kuek, hori ikusita, eurek gauza bera egin behar zutela pentsatu eta Europara ekarri zuten kasi-no gisako espekulazio hori.

Bederatzi urte igaro dira eta krisia ez da bukatu. Zergatik?
Galdera batekin erantzungo dut: aldatu dira krisia sortu zu-ten parametro, aldagai edo bal-dintzak? Ez. Gauza berbera egi-ten segitzen dute. Eta zergatik gertatzen da hori? Ez dakigula-ko, ez ekonomialariek bakarrik, baizik eta ezkerak oro har, nola funtzionatzen duen diruak. Eta bankuek badakite estatuek, eko-nomia erortzen utzi beharrean, laguntza emango dietela.

Hala ere, bilakaera desberdina izan da AEBetan eta Europan.
Bai. Europan munstro bat sortu dugu: Europako Banku Zentrala (EBZ). Independentea. AEBetan, Kanadan, Australian, Islandian, leku gehienetan, banku zentrala dago, moneta jaulkitzen duena eta parlamentu baten kontrol-pean dagoena. Berdin dio he-rrialdeko erregimena zein den, norbaitek kontrolatu behar du moneta nola eta zertarako sor-tzen den. Salbuespena Europa da. EBZ moneta jaulkitzeko sor-tu zuten, zero kostuan, jakina, eta arazoa hauxe da, hain zu-zen: haren gainean diru hori zertarako erabili behar den esango duen parlamentu bat ez egotea. Europan altxor publiko federal bat ez izatea da gaizki egin den lehen gauza. Alemania eta Herbeheretako banku han-diei diru hori ia-ia interesik ga-be ematen diete. Banku horiek, ordea, interes gogorretan sal-tzen diete besteei. Tranpa hutsa da, eta ondorioak PIGS deitzen

zaien estatuek jasaten dituzte, hau da, Portugal, Italia, Grezia eta Espainiak.

Eta Troikak baldintza latzak ezarri ditu.
Banku zentralek eskualdeen ar-teko desorekak kontuan izanda banatu ohi dute dirua. Europan ez, ezin da. Eta gauzak «beren onetik ez ateratzeko», neurri bat, defizit publikoaren muga, jarri dute denentzat, «desoreka-rik ez egoteko», inflazio handie-gia ez izateko. Muga hori eraba-kitzeko, Miterrandekin batu ziren zenbait ekonomialari eta ehuneko bat erabaki zuten: %3. Zergatik %3? Hirutasun Santua-ren sinboloa delako. Hau da, ho-rrelako neurri ekonomikoa ino-lako funts zientifikorik gabe asmatu zuten estatuek zenbat gastatu behar duten zehazteko.

Beraz, banku zentrala kontro-latzea funtsezko tresna da.
Edozein estatu orekatzeko, al-txor publiko bat egon behar da eskualdeen egoera ikusteko, ber-tako zerbitzu publikoak sosten-gatzeko edo enpresei laguntzak emateko. Hori nonahi gertatzen da, ez tirabirarik gabe, noski, ze-ren AEBetan, adibidez, ez dira gauza bera Hego Dakota eta Kali-fornia, azken hori askoz abera-tsagoa baita. Desorekak egon ba-daude, kapitalismoari horrek ez baitio axola. Baina garrantzi-tsuena da printzipioz badutela tresna bat, nahi izanez gero, es-kualdeak orekatzeko. Europan, krisia iristean, estatuek dirua es-katu behar izan zioten EBZri, eta zulo hori estali egin behar zen. Nola? Zerbitzu publikoak mu-rriztuz, langileen baldintzak okertzeko lan erreformak egi-nez... Gainera, badago lege bat esaten duena EBZk ezin diela go-bernuei diru laguntzarik eman. Baina bai austeritatea eskatu.

Ba al dago irtenbiderik?
Horri guztiari aurre egiteko, ba-dago metodo bat, [Warren] Mos-lerrek-eta proposatzen dutena. Diruaren funtzionamendua eza-gutzea. Europarrak gara, dirua ordenagailu batean egiten da, eta Alemania zein Herbeheretako bankuei ematen zaien diru hori

gobernuei eman behar zaie, zuzenean. Monetarismoak dioenez, zuk prezioaren interesa kontrolatzen baduzu eta interes txikia jartzen baduzu, diruak dirua eskatuko du, hau da, interes txikia eta inbertsioa. Hori oso polita da, baina ez du funtzionatzen, gauza bat da testu liburuetan agertzen dena eta beste bat praktikan gertatzen dena. Moslerrek eta Mitchelllek diotenez, badago oso irteera duina beste politika fiskal bat edukitzeko: altxor publiko federala, hain zuzen. Eta defizit publikoaren muga hori kendu, %8ra igotzeko. Zergatik %8? Estatu guztiek inbertsioak egiteko, enpresa txiki eta ertainei laguntzeko, erretiro pentsio duinak izateko, zerbitzu publikoak sostengatzeko. Hori zenbat kostatuko zaio EBZri? Ezer ez. Funtsera jo dezagun: diru gehiago behar dugu europarrok, bakoitzaren gabeziak bete eta lana bermatzeko. Lan bermea Diru Teoria Modernoaren zutabeetako bat da. Langabezia ikaragarria da, edozein estatutan, eta ezin dugu dena sektore pribatuaren esku utzi. Sektore pribatuak ikusiko du zer egiten duen, inbertitu edo ez... baina diru publikoa guk kudeatu behar dugu, instituzio publikoen bidez.

Lan bermea ekonomia abiatzeko giltzarria dela diozu.

Langabezian daudenei, lan egin nahi duten denei soldata duin bat emanda, kontsumitzeko aukera izango dute denek, zentzu onean kontsumitzeko, eta produktzioa izango da. Arlo pribatuak horrek funtzionatzen duela ikustean, agian inbertsioak egingo ditu, agian langileak hartuko ditu, eta soldata handiagoak eskainiko dizkie. Ezer ez izatetik ekonomia martxan jartzearainoko trantsizioa da. Euskal Herriari dagokionez, Estatu espainolari horrenbeste euro tokatzen zaizkio, frantsesari hainbeste, eta banaketa hori biztanle kopuruaren arabera egiten denez, badakigu Hego Euskal Herriari zenbat tokatzen zaion, eta berdin Ipar Euskal Herriari. Ipar Euskal Herriari ez dugu gobernurik; beraz, ogasunik ere ez, baina badago Baionako Ganbera, momentuz

KALTE-ORDAINA

Gaztetan, 1970eko hamarkadaren hasieran, hiru urtez ingeniari gisa lan egin zuen enpresatik bota zuten, aparteko orduak egiteari uko egiteagatik. Auzitara jo eta lortu zuen kalte-ordainarekin Portugaleteko pisuaren sarrera ordaindu zuen.



ogasuna balitz bezala funtziona lezakeena. Eta dagokigun dirua dugula, zertarako erabiliko dugu? Gure enpresa txikiei, gure eskola eta unibertsitatei, gure medikuei... emateko.

Baina Europak, hain justu kontrako politiketan tematuta, nekez onartuko luke halakorik.


Halaxe da. Ezetz esango digu, ez guri bakarrik, baita Estatu espainolari eta guztiei ere. Europarrak gara eta nahi dugu denok berdin tratatzea. Esandako ehuneko hori onartzen ez badute, bagoaz. Hori da Greziak egin ez duena, beste modu batez Eskoziak egin ez duena, hori da orain Katalunian CUPen bidez eztabaidan dagoena eta guri ere inoiz eztabaidatzea tokatuko zaiguna. Bagoaz eta gure diru propioa eratuko dugu. Eta banku zentral eta altxor publiko propioak izango ditugu. Orain sakabanatuta gaude eta, jakina, batasun politikoa oso inportantea da. Baina bitartean

ere gauzak egin daitezke. Ezkerren ikuspuntua, oro har, baita Euskal Herrian ere, hauxe da: lana eta errenta banatu, zergak igo, dirua edukitzeko. Nik ezetz diot. Gure tarta handitu egin behar da, beste politika fiskal baten bidez, hau da, gastu publiko handiagoarekin. Dirua jaulkitzeko ez du kosturik. Bestetik, langabezia ikaragarria egonda, zer lan eta zer errenta banatuko duzu? Zergatik ez lanpostu berriak sortu? Lan bermea behar dugu, errenta handiagoa edukitzeko. Horrekin hamaika arazo konpon litezke, pentsioak, zerbitzu publikoak... eta gero bai, zerga progresiboak. Lehenik, tarta handitu, eta ondoren, banatzeko, gehien duenari gehiago eskatu.

Beraz, EB bai, baina egungo baldintza hauetan, ez.

Yanis Varoufakisek, Greziako Gobernuaren egon zenean, Mitchellen eta Moslerren laguntza izan zuen. Eta aholkatu zioten Euro-

pari esateko: «guk badakigu diruak nola funtzionatzen duen, eta %3ko muga hori kendu behar diguzue, %8raino zabaldu». Aholkuak bigarren zatia ere bazuen: ezetza jasoz gero, alde egiteko. «Baina nora joango dira?», esango dute batzuek. Bada, EFTA Europako Merkataritza Librerako Elkartera. Bertan Norvegia, Suitza, Liechtenstein eta Islandia daude. Euroa erabiltzen ez dutenen gune ekonomiko bat da, eta guztiekin ditu harremanak, baita Europar Batasunarekin ere. Kontua da Grezia oso txikia dela, baina eztabaida hori badago, luze eta sakon, Portugalen eta Italian, esate baterako. Europa mailan badago irteera horren aldeko hitz bat: *lexit*, hau da, *left* (ezkerra) eta *exit* (irteera) hitzen elkarketa. Proposamena ezkerretik irtetea da, eta jada horren inguruan dabil Europa osoko jende pila bat. Gero eta gutxiagok pentsatzen baitute, Varoufakisek bezala, posible dela Europa osoa errefor-



Argazkiak: GAUR8

matu eta euroarekin segitzea. Eta gero eta gehiago dira Europari hordagoa botatzearen alde. Portugal, Italia eta Estatu espainola ez dira Grezia txikia. Austeritatea ezin da bukatu diru publikorik ez baduzu, eta diru publikoa ez da lortzen Alemaniako bankuei dirua erosiz. Erakutsi behar diegu badakigula nola funtzionatzen duen diruak. Mehatxu egingo dute, Islandiari bezala, baina hara zer esan zien herri txiki horrek Britainia Handiko eta Herbehere-tako banku handiei: «zuek egin duzue zulo hori, zuek ordainduko duzue». Hori da munduan bankuen aurka egin den lehen ekintza zuzena. Beste guztiek irentsi baino ez dute egin.

Zuk eredu gisa jartzen duzu.


Gehienek esan zuten porrot egingo zutela, ez dakit zer gertatuko zela... Baina orain langabezia tasa oso txikia dute, barne produktu gordin nahiko altua, bizi kalitate izugarria... Orain, mundu mailan eredu dira.

«Brexite»-aren ondoren, zer?

Britainia Handiak bazuen moneta propioa, ogasuna, altxor publikoa, kontua zen euroaren gainean eratutako neurri ekonomikoei lotuta zegoela, eta dagoela; esate baterako, %3 mada-rikatu horri. Eta orain badute tresna garrantzitsu bat beren ekonomia nahi duten bezala antolatzeke. Britainia Handian eskuinekoak daude Gobernuan, oso eskuinekoak, eta ez dute lan bermea abiatuko, ez dute zerbitzu publikoetan inbertituko, kapitalismo gordinak jarraituko du; izan ere, gauza bat da beharrezko tresna horiek izatea eta beste bat nola erabiltzen dituzun. Edonola ere, austeritatearen aurka egin dezakete, nahi izanez gero. Eta EBN, ez. Jeremy Corbyn, Alderdi Laboristako liderra, *Brexit*-aren alde agertu zen, gero aurka; hau da, ez zuen oso argi, eta hori da Europako ezker osoari gertatzen zaiona.

Beraz, ez da batzuek iragarritako hondamendia izan?

Hondamendia? Orain baino okerrago egotea zaila izango da. Segur aski defizit publikoa han-



ditu egingo dute, baina horrek ez du esan nahi jendearentzat oro har hobe izango denik. Izan liteke, esate baterako, esportazioa sustatzeko, eta hori ere aipatu behar da. Lehengoan [Iñigo] Urkulluri entzun nion ekonomia ondo dagoela esportazioak handitu direlako. Baina nork esportatzen du? Enpresa jakin batzuek. Herri batentzat produzitzen duena da onuragarria, gehi inportazioak ken esportazioak. Esportazioak onak izan daitezke enpresa batentzat, edo gehiagorentzat, baina, denentzat, ez. Eta une honetan, nazioarte mailan lehia handia dagoela, esportatzeko kostuak jaitsi egin behar dituzu. Nola? Langileen soldatak murriztuz.

«Nola daude Grezian? Europar Batasunetik joan izan balira okerrago egongo lirateke? Ez dut uste orain bezain gaizki egongo liratekeenik. Hor dago Islandia»

Txinak asko esportatzen du, eta Japoniak, eta hango soldatak nolakoak dira?

«Brexit»-a Eskoziarentzako aukera bat omen da.

Bai, Britainia Handitik ateratzeko bai, baina EBra sartzeko? Zergatik ez bietatik kanpo?

Eta Europarentzat zer ondorio ditu «Brexit»-ak?

Hasteko, Britainia Handiak erakutsi du, oso modu demokratikoan, posible dela politikoki independente izatea eta hori arriskua da Europarentzat, batez ere Italia, Portugal, Greziari... begira. Izan ere, iritsiko da jendeari gehiago estutzea ezinezkoa izango den une bat. Gre-

zia lehertu egingo da. Eta *Brexit*-a Europan demokrazia eta autodeterminazioa erabiltzearen erakusgarri da. Eskozia izan zen moduan. Horregatik [Mariano] Rajoyk-eta diote hemen ezin dela autodeterminazio eskubidea erabili, badakitelako horixe bera dela.

GAUR8ko erreportaje batek Erresuma Batuan bizi diren zenbait euskaldunen iritziak jaso zituen. Ez zuten «Brexit»-aren garaipenik espero, eta nabarmena zen denek erakutsi zuten ziurgabetasuna, are beldurra.

Ziurgabetasuna informazio faltaren ondorio izaten da sarri. Ez dut uste eskuinak berak Erresuma Batua dagoen baino egoera okerrago eramango duenik. Eta Eurogunearekiko harremanak izango dituzte, Alemaniak berak esan du. Beste kontu bat da, eta konprenigarria da kezka zentzu horretan, euskaldun horien edo kanpoko jendearen egoera pertsonala. Zirkulazio libreak, lanari eta abarri dago-kion egoera, alegia.

Hala ere, badago halako berti-go bat EBtik irteteko pausoa ematerakoan. Greziari begira, batzuek argi zuten, baina, beste batzuek, ezkerretik bertatik, bazioten errazegi esaten direla horrelakoak bidea oso latza izan daitekeela jakinda.

Hura xantaia izan zen. Hura ikaragarria izan zen. Zenbat denbora pasatu da? Eta nola daude Grezian? Joan izan balira okerrago egongo lirateke? Ez dut uste orain bezain gaizki egongo liratekeenik. Hor dago Islandia. Ez dut esan nahi denentzako paradigma denik, baina bai eredu bat, horretan zintzo jokatu duena, bere politika ekonomikoan sartu gabe.

Arriskatu egin beharra dago, beraz?

Ausardia behar da, bai Euskal Herrian bai edonon. Eta..., beno, ez dut jakinduria esango, inork ez dezan pentsa ni azkarra naitzela eta gainerakoak tontoak uste dudarik. Baina beharrezkoa da informatuta egotea ere.



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



ORTUTIK AHORA

Busturiko Pikoluze tomate tartarra «ajoblanco»-arekin

OSAGIAK

Tartarra:

200-300 gramo Busturiko Pikoluze tomate ekologikoa (edota tokian tokiko beste tomate barietate bat), 40 gramo oliba olio birjin, 75 gramo mahaspasa, Añanako gatza, 100 gramo kipula, 20 mililitro soja saltsa, tipulina (edo kipula freskoaren atal berdea)

«Ajoblanco»-a:

75 gramo intxaur, ur edota almendra, 180 gramo ur, bi berakatz (baratxuri), ogi-zerra txigortua, gatza, ozpina, 150 gramo oliba olio birjin

PRESTAKETA

Gure tartarra prestatzeko tomateari azala kendu, zuritzailearekin. Zaila egiten bazaigu, ipini ura irakiten, tomatearen ipurdian bi ebaki egin eta sartu uretan minutu batez. Atera eta ur izoztura bota, egosketa gelditze-ko. Zuritu, zatitu, haziak kendu eta laukitxo txikietan ebaki (*concasse*). Kipula juliana eran gehituko diogu. Jarraian, tipulina edo kipula freskoaren atal berdetxoa gehitu, baita mahaspasak, gatza, olio eta soja saltsa ere. Hozkailuan gorde gutxienez bi orduz.

Ajoblanco-a prestatzeko: Almaiz edo motrailua erabiltzen badugu, bota fruitu lehorrak, gatza eta baratxuriak eta txikitu pasta bat lortu arte. Joan gehitzen olio apurka-apurka, loditu arte. Azkenik, ozpina bota eta zuzendu gatz puntua. Ez badugu almaiza erabili nahi, sartu osagai guztiak irabiagailuaren ontzian eta txikitu. Hozkailuan gorde hotz egoteko.

Platera aurkezteko, tartarrari kendu tomateak gatzaren eraginez botatzen duen ura eta molde batean sartu pixka bat estutuz forma mantentzeko. *Ajoblanco*-a bota tartarraren inguruan. Apaintzeko, tipulina zabaldu eta olio tantatxo batzuk bota.

EkologikON EGIN!

Tomatea, udako erregea

Ameriketatik datorren bi-txi gorria da tomatea. XVI. mendearen hasieran iritsi ziren lehenengo aleak Erdialdeko Europara, baina hasiera batean apaingarri moduan erabili ziren jendeak ez baitzuen begi onez ikusten fruitu gorri hura.

Tomatea elikagai osoa da, eta, beraz, erabat gomendagarria. Hala, 18 kaloria eskas ditu 100 gramoko, ura eta zuntz asko, baita A eta C bitaminak eta mineral ugari ere, hala nola kaltzioa eta burdina. Bestalde, likopeno iturri oso handiak dira tomateak. Likopenoak pigmentu begetalak dira eta tomateari bere kolore gorria ematen diote. Pigmentu horiek minbizi batzuen prebentziorako lagungarriak dira, baita gaixotasun kardiobaskularrak ekiditeko ere.

Gure sukaldeetan aktore garrantzitsua da egun tomatea, batez ere udan. Herri guztietako merkatuen erregea dugu, zalantzarik gabe. Dena den, abagune hau aprobetxatuko dugu gainontzeko udako zein neguko beste barazkiak aldarrikatzeko: berenjenak, lekak, piperrak, luzokerak, kuiatxoak... Sasoiko barazkiek aukera zabal, gozagarri eta onuragarria eskaintzen dute! Nahiz eta gozoenak eta bitaminatsuenak udako tomateak izan, badaude gordetzeko balio duten eta negu osoa iraun dezaketen barietateak ere, esaterako Ramallet deritzona, oso ezaguna Katalunian *pa amb tomaquet* ospetsua prestatzeko erabiltzen baita.

TOKIKO BARIETATEAK

Fruitu gorri honen ehunka barietate daude. Hala, tokiko barietate bakoitza aproposena da bere gunean, eta kontsumitzeko

fruiturik onenak, inolako zalantzarik gabe, hurbileko ekoizpenean topatuko ditugu. Izan ere, ezberdintasun kualitatibo handiak daude tokiko barazkien eta kanpoan ekoiztutakoen artean. Gertutasunak posible egite du fruitua bere puntu egokian bildu ahal izatea, ganberatan gordeta egon beharrik gabe. Zuzenean merkatura hel-tzen dira, eta horrek balio erantsia ematen dio produktuari zapore, kolore, ehundura eta, nola ez, osasunarekin lotutako propietateei dagokionez. Azpimarragarria da Euskadiko Hazien Sareak bertoko barietateek osatzen duten altxorra berreskuratu eta zaintzeko egiten duen lan aparta. Hazien Sareak tokiko haziak bildu, sailkatu eta gordetzen ditu. Gainera, izugarrizko heziketa lana egiten du herritarrekin.

Oraingo honetan, Busturiko Pikoluze tomatea aukeratu dugu gure errezeta freskagarri hau prestatzeko. Bihotz formako to-

matea da, tamaina handikoa, mamitsua, hazi gutxiduna eta oso zapoetsua. Bere laborantza batez ere Lea Artibai eta Busturialdean ematen da, eta, Euskal Herriko Hazien Sarearen “Variedades locales hortícolas de Euskal Herria” liburuan aditza ematen denez, tokiko baserritarrek diote «1947tik gaur egun arte etengabeko laborantza» izan dela.

TOMATE TARTARRA «AJOBLANCO»-AREKIN

Busturiko Pikoluze tomatearekin egindako errezeta hau oso aproposa da udarako, freskagarria, erraza, bitaminatsua eta oso gozoa. Gainera, nahi izanez gero elektrizitatek gabe ere presta daiteke! Berreskuratu almaiz edo motrailuak *ajoblanco* artisauna egiteko. Osagai guztiak ekologikoak, noski!

Ortutik Ahora Elkarte



Iratxe Esnaola Arribillaga
Hezkuntzan doktorea

«Influencer»-ak

«Influencer» bat sare sozialetan presentzia duen eta gai zehatz baten gainean sinesgarritasuna duen pertsona bat da, erakunde edo marka batentzat preskriptore edo bultzatzaile lana egin dezakeena. Eragin-marketinaren barruan kokatzen da (ahoz ahokoa bezala). Berria dela esan daiteke. Eta bere berezitasuna publiko xedean dago. Eragin-marketinaren helburua *influencer*-a bera da, ez markaren produktuak edo zerbitzuak erosi eta kontratatuko dituen bezeroa. Noski, bezero horietan eragina izan dezaketen *influencer*-ak izango dira, eta kasu batzuetan *influecer*-a bera ere bezeroa izan daiteke. Baina eragin-marketinaren barruan sartzen diren aktibitate ezberdinak, *influecer*-ari begirakoak dira: berau hautatu, motibatu, zaindu eta, modu batean edo bestean, saritzea.

Agian ez dugu askotan *influencer* hitza entzun, baina gero eta gehiago erabiltzen da. Espainiar Estatuko ekainaren 26ko hauteskundeen ondotik, PPren nolabaiteko garaipena *influencer* batzuei lotu zaie. 1.500 omen ziren. Eta, diote, besteak beste, horrela egin zuela gora PPK, besteak behera egin zutenean.

«On line» komunikazioa eta estrategia digitala izan omen ziren giltza. Facebooken batez ere, gainontzekoak Twitterri gehiago begiratzen zioten bitartean. Hori guztia antolatu zuena: The Messina Group, Obama eta Cameronen kanpainak diseinatu dituen enpresa amerikarra. Euren lehen urratsa, Facebook eta Twitterreko milaka kontu aztertzea, Big Data erabiliz (informazio kantitate handiak analizatu eta hortik jakintza ateratzeko teknologia da, gero eta ezagunagoa eta erabiliagoa). Bilaketa itsua izan omen zen, PPren edukiekin elkarrekintza gehien zuten kontuak hartuz, adina, generoa, jatorria, afiliazio posiblea eta gisakoak kontuan hartu gabe. Emaizta: 3.000 profil. Mezu pribatu

bat bidali zioten bakoitzari eta erdiek parte hartzea erabaki zuten. Hortaz, 1.500 *influencer* lortu zituzten.

1.500 *influencer* horiek antolatu eta kudeatzeko, Telegrameko kanal bat sortu zuten. Telegram Whatsapp ezagunaren antza duen aplikazio bat da, berehalako mezularitzarako erabiltzen dena (baina estandar irekietan oinarritzen da). Aukera ematen du kanalak sortzeko, non guk izena eman dezakegun. Hau da, mezuak jasotzeari dagokionez, Whatsappeko talde bat bezala litzateke, baina besteen telefonoak ezagutzeko beharrik izan gabe. Kanala sortu, kanalaren izena zabaldu eta kanalean parte har dezakezu. Hori egin zuten 1.500 *influencer*-ekin: Telegrameko kanal bat erabili *influencer* guztien sareko aktibitatea koordinatzeko. Esaterako, gau horretan telebistan PPko norbait egongo zela adierazten zuten. Edota PPren programaren bost gakoak zein ziren. Edukietan asmatzea estrategikoa zen, noski. Eta gisako mezuak Telegrameko kanalaren bitartez zabaldu orduko, *influencer*-ek euren kontu pertsonal eta propioetan zabaltzen zituzten. Minutu gutxitan *trendig topic*-ak lortzen zituzten.

Modu horretan, PPren Interneteko irudia nolabait aldatzea ere lortu zuten. Presenteago egotea. Eta, batez ere, modu oso eraginkorrean. Ezin da jakin honek zenbateko eragina izan zuen emaitzetan, baina nago, izan zuela.

Estrategia erabat digitala izan zen: Big Data teknologia erabili zuten analisirako eta *influencer*-ak identifikatzeko; *influencer*-ak erabiltzaile digitalak ziren, Facebookekoak batez ere; *influencer*-ak kudeatzeko eta zaintzeko, Telegrameko kanal bat erabili zuten; eta *influencer*-en mezuak, sare sozialetan zabaltzen ziren.

Estrategia amerikarra dela esan dute, baina nago, gero eta gehiago ikusiko dugula. •




Azken hauteskundeetan PPK gora egin izana «influencer» batzuei lotu zaie.

Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



KUTXATEKA. ALDAY FUNTSA. JUAN RAFAEL ALDAY

IDIEN LAGUNTZA TARTEKO, BAINU EGUNA KONTXAN

1840an, I. Karlistaldia bukatutakoan, Donostiako Kontxako hondartzan lehenbiziko aldagelak agertu ziren, bainulariak itsasertze-raino eramateko idiak baliatzen zituztenak. Donostiako lehen bainu-arautegia 1829koa da, eta bi gune ezarri zituen, bat gizonez-koentzat eta beste bat emakumezkoentzat, hala nola ordutegi ezberdinak, batzuk eta besteak batera ez bainatzeko. Bi urte gero-ago, kaian eta Santa Katalina zubian bainatzea debekatu zuen udal bandoa atera zuten, donostiar gazteak biluzik bainatzen baitziren leku horietan. Argazkia Juan Rafael Aldayk egin zuen XIX. mendearen amaieran. 1911n, udal arkitektoa zela, Kontxako bainuetxe berria, hegala eta bainularientzako aldagela berriak proiektatu zituen.



GAUR8 ireki gure leihoa

